



TRAMITAZIOAK/ LIZENTZIA ESKABIDEAK

LIZENTZIA ESKAERA, HIRI LURZORUKO LURZATIETAN ATARIPEAK ERAIKITZEKO

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:

Eskabide orokorra behar bezala beteta

- Harremanetarako telefono-zenbakia jarri.
- Obra zein lurzorutan eta poligonotan egin nahi den adierazi.

Ataripea lurzatian edo terrazan kokatzeko krokisa.

Eraiki nahi den ataripearen krokisa, haren luze-zabalak zehaztuta.

Aurrekontu xehakatu.

Lurzati zedula eguneratua.

Bizilagun elkartearen baimena.

Teknikari eskudunek sinaturiko ziurtagiria, erabileraren gainkargen kalkulua egiaztatuko duena gaiari buruzko indarreko arauaren arabera.

APLIKATU BEHARREKO ARAUAK:

ALTSASUN ATARIPEEN ERAIKUNTZA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA, 2006KO MAIATZAREN 26KO OSOKO BILKURAK BEHIN BETIKOZ ONETSIA (75 ZENBAKIDUN NAO_n ARGITARATU ZEN, 2006ko EKAINAREN 23an):

Altsasun eraiki (edo legeztatu) nahi diren ataripeek, lurzatiko eraikigarritasuna ahitua badago ere, ondoren ematen diren baldintza guztiak bete behar dituzte:

- Bizitegietarako hiri lurzorian dauden lurzatietan baizik ez dira eraiki ahal izanen.
- Beheko solairuan edo terrazetan eraiki ahal izango dira, betiere gainerako baldintzak betetzen badituzte. Orobat, patio itxietako lehen solairuan eraiki ahal izango dira.
- Eraikin nagusiari itsatsirik eraikiko dira eta haien luze-zabalak hauek izango dira gehienez:
 - Garaiera gailurreraino: 3,5 metro.
 - Luzera: Erantsirik doan fatxadarena.
 - Sakonera: 3,0 metro (estalkiaren proiektzioa solairuan).
 - Estalkiaren malda: 30-40 %.
- Eraikuntzarako erabili beharreko materialak hauek dira:
 - Egituran: Zura edo obra, fatxadan erabili bezalako materialaz jantzia.
 - Estalkian: Teila zeramikoa.
- Ataripeak irekiak izango dira; ez dira ixten ahalko inolako sistema edo material erabilirik ere.
- Gutxienez ere 3.0 metroko tarte librea utzi beharko da (ataripearen luzerarekiko perpendikularra) lurzatiaren, eraikinaren edo terrazaren mugaraino.